



Día de Caridad.  
6 de junio de 2010.  
**Guión litúrgico.**

### INTRODUCCIÓN

Los primeros cristianos llamaban a lo que vamos a celebrar “la fracción del pan”. En este día del Corpus recordamos, una vez más, que Jesús nos animó a reconocerle y encontrarle en la fracción del pan. En el partir y en el compartir.

Desde el curso pasado Caritas está desarrollando una campaña que lleva por lema “una sociedad con valores es una sociedad con futuro”. En este día del Corpus, el valor que quiere destacar es el de la gratuidad. La necesidad de “dar gratis”.

### ACTO PENITENCIAL

- Tú que diste la vida por amor.  
SEÑOR TEN PIEDAD.
- Tú que no has enseñado a querernos sin pasar la factura.  
CRISTO TEN PIEDAD.
- Tú que nos perdonas y nos has enseñado a perdonar.  
SEÑOR TEN PIEDAD.

### HOMILÍA

Seguramente todos/as hemos oído alguna vez, o hemos dicho “*nadie da nada gratis*”. Esta frase refleja algo que ocurre con demasiada frecuencia en nuestra sociedad. Hay mucha gente que cree que todo se puede comprar o hay que pagarlo con dinero. Que lo que nos mueve a los humanos es, sobre todo, el sacar ventajas, salir ganando y que se puede comercializar hasta el cariño o la amistad.

Aunque refleje una realidad, la frase es totalmente injusta. **Los humanos somos capaces de dar gratis** y para reconocerlo basta abrir los ojos. Las cosas más valiosas las hacemos gratis: querer a los hijos/as, cuidar a un familiar que se va deteriorando y ya ni siquiera nos reconoce, dedicar tiempo a escuchar o a ayudar a gente desgraciada, o repartir mi dinero anónimamente. Sí. Somos muy



capaces de “dar gratis” y eso es reconfortante para quienes lo practican y para quienes lo sabemos ver.

Así que, aunque pueda parecer una recomendación exótica, **Cáritas nos invita a dar gratis**. No es ésta una recomendación inventada por Cáritas, sino un recuerdo de lo que Jesús encargó a sus amigos cuando les mando a transmitir la “Buena Noticia”: “Dad gratis”.

En definitiva, hay que creer que el amor es más poderoso que el miedo o el dinero y **que es posible el “te quiero porque te quiero”** que es lo contrario a “te quiero porque eres bueno”... o porque haces lo que yo quiero... o porque me los agradece.... o porque me tengo que ganar el cielo....

Es un aprendizaje difícil, porque a todos nos encanta que nos agradezcan el bien que hacemos; lo cual no está mal, pero no puede ser el motivo para que ayudemos o compartamos.

En un informe de Cáritas del año 2008 decía: *no debemos reducir la crisis a una cuestión financiera; detrás de ella está un modelo que no ha logrado reducir la pobreza,.... Es necesario y urgente un cambio, personal y comunitario, y una revisión de valores y motivaciones.*

¿Merece la pena hacer un esfuerzo para no comercializar la vida, el cariño y la ayuda a los demás? ¿Merece la pena dar gratis? Desde luego merece la pena.

### **ORACIÓN DE LOS FIELES**

- Para que los cristianos unamos la eucaristía al compromiso de dar gratis.  
ROGUEMOS AL SEÑOR.
- Para que mantengamos la sensibilidad ante todo sufrimiento, soledad, injusticia y violencia.  
ROGUEMOS AL SEÑOR.
- Para que los que tienen el poder, los educadores y los medios de comunicación transmitan valores solidarios.  
ROGUEMOS AL SEÑOR.
- Para que construyamos entre todos, un mundo “con futuro”: más humano, más justo y más pacífico.  
ROGUEMOS AL SEÑOR.



Karitatearen Eguna.  
2010eko ekainaren 6a.  
**Liturgia-gidoia.**

### **SARRERA**

Ospatuko dugunari lehenengo kristauek ogia zatitzea deitzen zioten. Gorputz egun honetan gogoratzen dugu berriro ere, Jesusek animatu gintuela bera ezagutzera eta topatzera ogi zatian. Berori zatitzean eta elkarbanatzean.

Iazko ikasturtetik Caritas-ek abian du “Baloreak dituen gizartea etorkizuna du” leloa duen kanpaina. Gorputz egun honetan gailendu nahi dugun balioa doakotasuna da. Dohainik emateko beharra, alegia.

### **PENITENTZIA**

- Maitasunagatik bizia eman zenuen hori,  
ERRUKI JAUNA.
- Dohainik maitatzen erakutsi diguzun hori,  
KRISTO ERRUKI.
- Barkatzen gaituzun eta barkatzen irakatsi diguzun hori,  
ERRUKI JAUNA.

### **HOMILÍA**

Ziur asko denok entzun edo esan dugu noizbait “*inork ez du ezer ematen dohainik*”. Esaldi horrek islatu egiten du gure gizartean gehiegitan gertatzen den zerbait. Jende askok uste du dena eros daitekeela edo dena dirutan ordaindu behar dela. Gizakiok mugiarazten gaitu zerbaitetik onura ateratzeak, irabazle ateratzeak; eta uste dugu maitasun eta adiskidetasuna merkatura daitezkeela.

Nahiz eta errealitate bat islatu, esaldi hori guztiz bidegabekoa da. Gizakiok dohainik emateko gai gara eta hori ikusteko begiak ireki baino ez dugu egin behar. Gauzarik baliotsuenak dohainik egiten ditugu: seme-alabak maitatzea; osasuna andeatzen ari zaion eta dagoeneko ia ezagutzen ez gaituen senide bat zaintzea; nahigabetuei



entzuten edo laguntzen denbora ematea edo dirua banatzea izena adierazi gabe. Bai, dohainik emateko gai gara eta hori bizkorgarria da horixe egiten dutenentzat eta ikusten dakigunentzat.

Beraz, nahiz eta gomendio bitxia iruditu, **Caritas-ek dohainik ematera gonbidatzen gaitu**. Ez da Caritasek asmatutako gomendioa, baizik eta Jesusek bere lagunei agindu ziena “Berri Ona” adierazteko esan zienean, hau da, “Eman doan”.

Laburbilduz, sinetsi behar da amodioa beldurra edo dirua baino boteretsuagoa dela, eta posible dela “maite zaitut maite zaitudalako” eta hori kontrajartzen zaiela beste hauei: “maite zaitut ona zarelako”... edo “eskertzen didalako”.. edo “zerua irabazi behar dudalako”...

Hori ikastea zaila da, izan ere, denoi izugarri gustatzen zaigu besteek eskertzea egiten dugun ongia, eta hori, berez, ez da txarra, baina ezin da izan laguntzeko edo elkarbanatzeko arrazoia izan.

Caritaseko 2008ko txosten batek haxe zioen: *ez dugu krisia mugatu behar finantza arazo batera, horren atzetik txirotasuna murriztea lortu ez duen eredu bat dago... Beharrezkoa eta presazkoa da norberaren eta gizartearen aldaketa eragitea, baita balio eta motibazioen azterketa egitea ere.*

Merezi al du ahalegin bat egitea bizitza, maitasuna eta besteekiko laguntza ez merkaturatzeko? Merezi al du dohainik ematea? Jakina, merezi du.

### **FEDEDUNEN OTOITZA**

- Kristauok eukaristia doan emateko konpromisoarekin uztar dezagun.  
ENTZUN JAUNA GURE ESKARIA.
- Sufrimenduaren, bakardadearen, bidegabekeriaren eta bortxakeriaren aurrean sentsibilitateari eutsi diezaiogun.  
ENTZUN JAUNA GURE ESKARIA.
- Boterea dutenek, hezitzaileek eta komunikabideek elkartasun baloreak adieraz ditzaten.  
ENTZUN JAUNA GURE ESKARIA.
- Guztion artean etorkizuna izango duen eta bihozberagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa izango den mundu bat eraiki dezagun.  
ENTZUN JAUNA GURE ESKARIA.